



MEMORIA

2013ko URRIA-2014ko IRAILA

INGURUGIRO ETXEA

Loiola Auzoa, 1

20730 Azpeitia

Tel.- Faxe: 943812448

museo@ingurugiroetxea.org

www.ingurugiroetxea.org

AURKIBIDEA

1- Aurrekariak	3
2- Lehentasunezko lan lerroak.....	5
2.1- Ikerkuntza eta esperimentazioa	5
2.1.1- Eskolako Agenda 21	5
3- Programak	8
3.1- Ikasleen prestakuntza	8
3.1.1- Programak.....	8
3.1.1.1- Lapatx zabortegia eta uraren zikloko ekipamenduak	8
3.1.1.2- Igarako ur-errota.....	9
3.1.1.3- Kontsumo iraunkorraren gela.....	9
4- Asistentzia	10
4.1- Ikasturteko asistentzia	11
4.2- Ikastetxeen asistentzia zikloa.....	12
4.3- Ikasleen asistentzia programaka.....	13
4.4- Bisitariak hizkuntza ereduaren arabera.....	14
4.5- Bisitari kopurua probintziaka.....	15
4.6- Nork bere konturako ikustaldiak asteko egunaren arabera	16
5- Sentsibilizazioa.....	17
5.1- Bigarren Eskuko Azoka.....	17
5.2- Igara Errotako Ate-Irekiak	17
5.3- Ideia Onenaren Lehiaketa.....	17
5.4- Material Birziklatuekin egindako erakusketa	19
5.5- Ingurumenaren Astea	19
5.6- Baratzezaintza ikastaroak.....	21
5.7- Eskola Berdea	21
5.8- Ibaiaren garbiketa.....	21
5.9- Buletina	22
6- Baliabideak	22
7- Partaidetza eta koordinazioa.....	23
7.1- Batzorde teknikoaren bilerak.....	23
7.2- EA21 Programazioa.....	23
7.2.1- Koordinazio bilerak	23
7.2.2- Eskolarteko Foroa.....	24
7.2.3- Udal Audientzia.....	24
8- Eranskinak	25

1- AURREKARIAK

Gaur egun Ingurugiro Etxea museoa izenarekin ezagutzen dugun eraikuntza hasiera batean **Umeentzako Museoa** izan zen. Umeentzako museoa 1986an Azpeitiko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika eta Garraio Sailaren artean sinatutako hitzarmenari esker sortu zen, eta 1987ko ekainaren 5ean inauguratu zuten. Museoaren helburu nagusia bisitariak ingurumena babesteko ezagupenak, interesa, eta beharrezko sentsibilitatea lortzea izan zen. Bere hezkuntza-eskaintza 7-16 urte bitarteko ikasleei zuzenduta zegoen, nahiz eta eskolaurreko ume zein helduentzat egokitutako esperientziak ere eskaini. Bertako erakusketa guneak honako hauek ziren: **Espazioa, Aire, Lur planeta, Hiri hondakin solidoak, Ura, Gizakiaren eboluzioa, Geologia, Ekologia, Kontsumoa, Zetazeoak.**

Umeentzako Museoa erabat aldatu zen 1998-1999 urteen artean, bai eduki aldetik, bai ikuspegi aldetik ere. Bere helburu nagusia izan zen, hezkuntzaren bidez, pertsonak nahiz taldeak ingurumena eta ingurumenak duen izaera konplexua ulertzeaz gain, ingurugiro arazoak aurreikusi eta konpontzeko nahiz baliabideak modu arrazionalen erabiliz ingurumenaren kalitatea lortzeko kudeaketetan parte hartzeko ezaguerak, balioak, portaerak, eta gaitasun praktikoak eskaintzea.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, erronka honetaz jabetuta, Azpeitiko Udalarekin lankidetzan, museoaren historiako garai berri bati ekin zion **Ingurugiro Etxea museoa** sortuz, ingurumen ikuspegi berrietara egokituz, eta horrela, euskaldunei orokorrean eta bereziki eskoletako neska-mutilei ingurumena ezagutu eta honen arazoez jabetzen lagunduko zien espazio bat sortuz. Erakusketa berri hau lau gelatan banatu zen, eta bakoitzean ondoren aipatzen diren edukiak zeuden: 1. gelan: **Lur planeta, Atmosfera, Ura.** 2. gelan: **Materiaren eta energiaren zirkulazioa planetan, Bioaniztasuna, Lurzorua.** 3. gelan: **Hazkuntza demografikoa, Hiria, Garraioa, Zarata, Ekonomi jarduerak, Ingurumen planifikazioa.** 4. gela: **Energia, Zaborrak, Kontsumoa, Garapen iraunkorra.** Gainera, bere hezkuntza-eskaintza, Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara artekoa, beste ekipamendu batzuekin (Lapatxeko zabortegia, Igarako errota, Trenaren museoa, Uraren zikloko ekipamenduak) osatu zen, ingurumen heziketarako eskaintza aberatsa egokitu zen, esparru honetan aitzindari izan delarik.

Bestalde, 2003-2004 ikasturteaz geroztik, Ingurugiro Etxea museoak Eskolako Agenda 21 egitasmoa kudeatzen du Azpeitiko ikastetxeetan.

Bederatzi urteko ibilbidea egin ondoren, edukien eta erakusketako elementuen

aldaketaren beharra nabaritu zen, desfasetuta edota zaharkituta gelditu zirelako, eta era berean, Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiarako 2002-2020 helburuetara egokitzeko premia ere nabaritu zelako. Horregatik guztiagatik 2007ko urte bukaeran museoaren azken birmoldatze-lanak hasi ziren. Lan horien ondorioz, arlo batzuk desagertu egin ziren, eta utzi zirenak, berriz, osatu eta eguneratu. Gaur egun Ingurugiro Etxea 12 gaiz osatuta dago, lau gelatan banatuta. 1. gelan: **Atmosfera eta klima aldaketa, Ura**. 2. gelan: **Bioaniztasuna**. 3. gelan: **Demografia, Hiria, Arkitektura bioklimatikoa, Hirigintza iraunkorra, Energia eta Zarata**. 4. gelan: **Zaborrak eta kontsumoa, Garapen iraunkorra**.

Ingurugiro Etxea museoa doan bisita dezakete publiko helduak, eskoletako ikastaldeen (Haur hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara artekoek), aisialdiko taldeen, emakumeek, hirugarren adineko pertsonak, eta abar. Bertan, bi eratako bisitak kudeatzen dira. Alde batetik, nor bere kasa egin ditzakeenak museoko ordutegian, eta bestetik, hitzartutako bisitak. Bigarrenengo hauetan, museoko hezitzaileek taldeen aukeratutako hezkuntza-programak kudeatzen dituzte. Programa horiek museoan bertan zein ekipamendu osagarri batzuetan garatzen dira, -Lapatx zabortegean, Kontsumo gelan, Konpostaje plantan, Igarako errotan, uraren zikloko ekipamenduetan-hain zuzen, eta museoko liburuxkan *Programa osagarriak* izenpean azaltzen dira.

Programa osagarri hauek Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020ko helburuetan txertatzen dira, ondoren aipatzen den moduan:

1. **HELBURUA: Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea.** Ibai Eder urtegirako, Oñazko ur edangarrien araztegirako, Baiolegiko hondakin-uren araztegirako eta Igarako ur errotarako bisitetan oinarritzen da.
2. **HELBURUA: Natur baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua.** Lapatxeko zabortegirako, Konpostaje plantarako eta Kontsumo gelarako bisitetan oinarritzen da.
3. **HELBURUA: Natura eta biodibertsitatea babestea.** Reynoutria japonicaren erauzketarako planean oinarritzen da.
4. **HELBURUA: Lurraldeko oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua.** Azpeitiko Burnibidearen Euskal museorako bisitan oinarritzen da.
5. **HELBURUA: Klima aldaketaren eragina mugatzea**

2- LEHENTASUNEZKO LAN LERROAK**2.1- IKERKUNTZA ETA ESPERIMENTAZIOA****2.1.1.- Eskolako Agenda 21: Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza Programa**

2003-2004 ikasturteaz geroztik, Azpeitiko ikastetxeak iraunkortasunerantz abiatzeko programa honetako kide dira. Geroztik, pausoka-pausoka, herriko ikastetxeen partaidetza eta egitasmo honetan inplikaturik dauden irakasleen kopurua handitzen joan da.

2011/2012 ikasturtean Eskolako Agenda 21 proiektuan parte hartu duten ikastetxeak eta zikloak honako hauek izan dira:

- Iraurgi ikastetxeko Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergo osoa.
- Karmelo Etxegarai ikastolako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza osoa.
- Urola Ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa.
- Azpeitiko ikastola Ikasberriko Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoa.

Esan beharra dago, gainera, 2003-2004 ikasturteetik 2010-2011ra, Eskolako Agenda 21 esparruan sortu ditugun lan-fitxa eta material osagarri guztiak formatu berean editatu dituela Azpiazu & Urarte enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak aginduta. 2011-2012az geroztik, ordea, edizio lan hauek Eregi enpresak egin ditu.

2013-2014 IKASTURTEAN ESKOLAKO AGENDA 21EAN PARTE HARTU DUEN IKASLE KOPURUA

IKASTETXEAK	IKASLEAK				
	HH	LH	DBH	BATX	GUZTIRA
IZENA					
KARMELO ETXEGARAI IKASTOLA	348	464			812
UROLA IKASTOLA			382	138	520
IRAURGI IKASTETXEA	247	336	227	85	895
IKASBERRI AZPEITIKO IKASTOLA		179	105		284
GUZTIRA	595	979	714	223	2.511

Guztira: 2.511 ikasle

2013-2014 ikasturtean Eskolako Agenda 21 proiektuaren barnean egin dugun eskaintza honako hau izan da:

ESKOLAKO AGENDA 21
2013-14 AZTARNA EKOLOGIKOA: ENERGIA ETA URA

	OINARRIZKOAK	OSAGARRIAK
L H 1	Energiaren gastua duten elementuak behatu kalean + autobusak eta kotxeak kontuan hartuta.	<ul style="list-style-type: none"> ⑩ Igarako ur-errota ⑩ Ingurugiro Etxean energiaren gaia
L H 2	Uraren kontsumo ohiturak eta neurriak etxeetan aztertu eta herri mailako erabilera batzuk baloratu instalazio desberdinetan (igerilekuan, polikiroldegian, liburutegian...) hau da, herrian estimatu non izan daitezken kontsumo handienak (honetarako datuak eman).	<ul style="list-style-type: none"> ⑩ Igarako ur-errota ⑩ Uraren gaia museoan
L H 3	Geuk emandako datuetan oinarrituta energiaren kontsumoa aztertuko dute Udal-instalazio batzuetan (kiroldegia, igerilekua, liburutegia, ludotekak) eta etxeko kontsumoarekin konparatuko dute.	<ul style="list-style-type: none"> ⑩ Igarako ur-errota
D B H 1 - 2	<ul style="list-style-type: none"> - Uraren eta argindarraren kontsumoa udalerrian sektoreen arabera aztertu eta konparatu etxeko kontsumoarekin <ol style="list-style-type: none"> 1. udalerrikoa 2. etxeko kontsumoa: bataz-bestekoa atera eta ikusi norberak etxean zenbat gastatzen duen. ⑩ Pobrezia energetikoari buruzko datuak eta ur-galerenak eman. 	<ul style="list-style-type: none"> ⑩ Igarako ur-errota
D B H 3 - 4	<ul style="list-style-type: none"> - Udalerriko energia kontsumoa kwh eta eurotan) - Energia berriztagarrien bidezko energia sorrera Azpeitian. - Udalak hartutako neurriak energia kontsumoa murrizteko. 	
B A T X I L E R G O A	<ul style="list-style-type: none"> ⑩ Azpeitiko berotegi efektuko gasen inbentarioa aztertzea, erreferentzi batzuekin (adibidez, aztarna ekologikoa) konparatzea eta hiru urtetako (2009-2010- 2011) eboluzioa aztertzea. 	

ELEKTRIZITATEA (LH-ko 1. zikloa)

Denok dakigu energiak duen garrantzia gure bizitzan. Energiaren gastua duten elementuak behatuko dituzte kalean. Pentsatu beharko dute zenbateraino behar duten elektrizitatea bere eguneroko ekintzetan. Fitxa bat betez, ikasle bakoitzak bere auzoan ibilbide labur bat egingo du edo etxean galdetuta auzoko informazioa jasoko du. Ibilbide horretan elektrizitateari esker funtzionatzen duten elementu guztiak aztertuko dituzte (semaforoak, erloju termometroak, atezain automatikoak...). **Ekintza hau egin aurretik Ingurugiro Etxean energiaren gaia landuko dute.**

URA (LH-ko 2. zikloa)

Ura geure etxean eta herrian: fitxa baten bidez beren etxeko ur kontsumoa aztertuko dute: zein lekutan erabiltzen duten, zenbat kontsumitzen duten eta zein neurri har ditzaketen kontsumo hori murrizteko. Bestalde, Udal zerbitzuen funtzionamendua ezagutzeko asmoz, ur-kontsumo handia duten leku desberdinetara joango dira eta bertako arduradunei galdera batzuk egingo dizkiete.

ENERGIAREN KONTSUMOA UDAL-INSTALAZIOETAN (LH-ko 3. zikloa)

Taldetan banatuta, beraiek erabiltzen dituzten udal-instalazioetara (Iturri-txiki ludotekara, Txiki-txokora, Enparan Dorretxera, kiroldegira, igerilekura) joango dira instalazioetako arduradunei bertako elektrizitate kontsumoari buruzko hainbat galdera egitera. Geuk emango dizkiegu egin beharko dituzten galderak eta Udal-instalazio hauetako kontsumoak. Udaleko kontsumoak beraien etxeko kontsumoarekin konparatu beharko dituzte eta ondorioak atera. Ekintza hau egiteko beharrezkoa izango dute etxeko argindarraren fakturak aztertzea eta familiako kide bakoitzak egunean zenbat kontsumitzen duen kalkulatzeko.

URAREN ETA ARGINDARRAREN KONTSUMOA UDALERRIAN SEKTOREEN

ARABERA (DBH-ko 1. zikloa)

Emango dizkiegun datuetan oinarrituta, ura eta argindarraren kontsumoa aztertuko dute udalerrian sektoreen arabera (etxebizitzak, zerbitzuak, ostalaritza eta merkataritza, eta industria), eta etxeko kontsumoarekin konparatuko dute. Konparaketa hau egin ahal izateko, aurrez, etxeko argindarraren eta uraren fakturak aztertu beharko dituzte. Etxeko eta udalerriko kontsumoak pertsona/egun kalkulatu ondoren konparaketa egingo dute. Emaitzen ondorioak ateratzeko, erreferentziak emango dizkiegu.

Bestalde, pobrezia energetikoaren eta ur-galeren datuak emango dizkiegu.

AZPEITIKO ENERGIA KONTSUMOA: AURREZPEN NEURRIAK ETA ENERGIA

BERRIZTAGARRIEN ALDEKO URRATSAK (DBH-ko 2. zikloa)

Udalerriko energia kontsumoa (kwh eta eurotan) aztertuko dute. Horretarako, guk emandako informazioan oinarrituz, Azpeitiko kontsumoaren banaketa beste herrialde batekoarekin konparatuko dute eta ondorioak aterako.

Horrez gain, Azpeitian martxan dauden energia berriztagarrien erabileren inbentarioa egingo dute.

Bestalde, ikasleek udalak energia kontsumoa murrizteko hartutako neurriak ezagutuko dituzte eta urrats berriak proposatu beharko dituzte.

AZPEITIKO BEROTEGI EFEKTUKO GASEN INBENTARIOEN KONPARAKETA**(Batxilergoa)**

Jarduera honen helburua da ikasleek Azpeitiko hiru urtetako (2009-2011) negutegi efektuko gasen inbentarioak ezagutu, aztertu eta hauen inguruan hausnartzea eta hobekuntza proposamenak egitea. Jarduera burutzeko informazio osagarria banatuko zaie.

3- PROGRAMAK**3.1- IKASLEEN PRESTAKUNTZA****3.1.1- Programak**

Ingurugiro Etxea museoko hezkuntza eskaintza programen inguruan antolatzen da. Programa hauek Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza arteko ikasleei zuzenduta daude. Hezkuntza-ziklo bakoitzak bere lan-aukera propioak ditu, eta programa horien arabera diseinatu behar du bere ikustaldia. Hitzartutako bisita hauetan programa batzuk museo barruan lantzen dira, eta beste batzuk museotik kanpo, ondoren aipatzen diren lekuetan, hain zuzen ere:

- Lapatx zabortegia eta Uraren zikloko ekipamenduak

Zabortegiko ikustaldia astelehenetik ostiralera egin daiteke, goizez edota arratsalde. Bertan, zabortegiaren maketa ikusi, eta oinezko ibilbidea egiten da. Azken ekintza honetan, zabortegiaren gaur egungo egoera, bertan gure zaborrekin zer egiten den eta Lapatxek jasandako bilakaera ikus daitezke.

Uraren zikloko ekipamenduei dagokienez (Lasaoko hondakin uren araztegia, Ibai-Ederko ur edangarrien araztegia, Nuarbeko urtegia), berriz, bertako ikustaldiak ostegunetan eta ostiraletan egin daitezke, goizez edota arratsalde. Bisita horiek Artelatz enpresak gidatzen ditu.

- Igarako Ur-errota

Loiolan bertan dago XVII. mendeko ur-errota hau. Prestatu eta errekuperatu ondoren, 2000. urtetik Ingurugiro Etxeko bisitaldien barruan eskaintzen da. Bertan, ikasleek zein

bisitariak errota baten funtzionamendua ikus dezakete, eta baita energia berriztagarrien garrantzia eta erabilera ezagutu ere.

Bertako ikustaldiak ere astelehenetik ostirala bitartean egin daitezke, goizez nahiz arratsaldez.



- Kontsumo Iraunkorraren gela

Kontsumo Gelaren erakusketak erosketa simulazio bat proposatzen du ariketa moduan. Ariketa honetan iraunkortasun irizpideak hartzen dira kontuan. Lan-aukerak 4 ziklotara zuzenduta daude: Lehen Hezkuntzako Bigarren ziklora; Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklora eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ziklora.



4- ASISTENTZIA

Ondorengo epigrafean honako grafikoak azaltzen ditugu:

4.1- Hiruhileko asistentzia 2013ko urria-2014ko iraila

4.2- Ikastetxeen asistentzia zikloka

4.3- Ikasleen asistentzia programaka, hiruhilero


4.4- Bisitariak hizkuntza ereduaren arabera

4.5- Bisitari kopurua probintziaka

4.6- Nork bere konturako ikustaldiak asteko egunaren arabera

4.1- HIRUHILEKO ASISTENTZIA 2013KO URRIA-2014KO IRAILA


IKASTETXEAK		TALDE ETA ELKARTEAK		PUBLIKOA	GUZTIRA
IKASLEAK	IRAKASLEAK	IKASLEAK	IRAKASLEAK		
3.752	380	93	8	2.145	6.378



Grafikoak adierazten duen moduan, 2013-2014 ikasturtean ikastetxeek gain talde eta elkarteek ere bisitatu dute museoa, Mariaren Mirabeak kongregazioko mojak, Aisialdiko taldeak, Azpeitiko eguneko zentroa den Goienetxe Fundazioak eta Azpeitiko Iraurgi Uda-Txoko udaleku irekiak, hain zuzen ere.

4.2- IKASTETXEEN ASISTENTZIA ZIKLOKA


IKASTETXEAK		TALDE ETA ELKARTEAK		PUBLIKOA	GUZTIRA
IKASLEAK	IRAKASLEAK	IKASLEAK	IRAKASLEAK		
3.752	380	93	8	2.145	6.378



Gidatutako bisiten artean, museoa bisitatu duten ikasleen gehiengoa **LHko 1 eta 2. ziklokoak** izan dira.

Aipatu behar dugu, Goi mailako ikasketa izenarekin Errenteriako IEFPS Don Bosco eta Azpeitiko Iraurgi ikastetxeko Batxilergokoak sartu ditugula.

4.3- IKASLEEN ASISTENTZIA PROGRAMAKA




Grafikoak adierazten duenez, hiruhileko honetan gehien landu diren programak Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiari dagozkion lehen eta bosgarren helburuei dagozkienak izan dira, **Baliabide naturalak eta hondakinak** (%32k landu dute) eta **Klima aldaketa** (%37k landu dute).

Ondorengo taulan ikus daiteke Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiari dagozkion helburuen eta museoko programen arteko erlazioa:

HELBURUAK	PROGRAMAK	MUSEOAN LANDUTAKO PROGRAMAK
1- Aire, ura eta lurzorua	Bizi garen Lurra Atmosfera Ura Nuarbeko urtegia Ibai-Ederko edateko uren araztegia Lasaoko araztegia	Bizi garen Lurra %5k Ura %13kk Lasaoko araztegia %2k
2- Baliabide naturalak eta hondakinak	Hondakinak eta kontsumoa Lapatx zabortegia Kontsumo Iraunkorraren gela	Hondakinak eta kontsumoa %20kk Lapatx zabortegia %11k kontsumo Iraunkorraren gela %1ek
3- Natura eta biodibertsitatea	Animaliak eta landareak	Animaliak eta landareak %5ek
4- Lurraldearen oreka eta mugikortasuna	Hiri ekosistema Garraioa Zarata	Zarata %6k
5- Klima aldaketa	Energia Klima aldaketa Garapen Iraunkorra Igarako errota	Energia %12k Garapen Iraunkorra %3k Igarako errota %22k
	Bisita orokorra	Bisita orokorra %0k


4.4- BISITARIAK HIZKUNTZA EREDUAREN ARABERA (IKASTETXEETAKOAK)




Grafikoak adierazten duen moduan, epealdi honetan museo bisitatu duten ikastetxeak D ereduak izan da.

4.5- BISITARI KOPURUA PROBINTZIAKA (IKASTETXEKOAK ETA PUBLIKOA)


Ondorengo grafikoan ikastetxeetako bisitarien jatorria adierazi da. Ikusten den moduan, bisitari gehienak Gipuzkoatik etorri dira.



Nork bere kontura museoa bisitatu duten Euskal Autonomia Erkidegoko bisitari gehienak Gipuzkoatik etorri dira, %90, hain zuzen. EAetik kanpo etorri direnen artean aipatu, Valentzia, Argentina, Madagaskar, India, Brasil, Peru, Tarragona, Nafarroa, Avila, Kamerun, Austria, Katalunia, Burgos, Madril, Alemania, Ingalaterra, Frantzia, Italia, Galizia eta Errioxatik etorri direnak.



4.6- NORK BERE KONTURAKO IKUSTALDIAK ASTEKO EGUNAREN ARABERA



ASISTENTZIA 2013 – 2014 IKASTURTEAN

2012/2013 – 2013/2014 IKASTURTEEN ALDERAKETA												
HILA	ESKOLA EGUNAKS		TALDEAK		IKASLEAK		RAKASLEAK		PUBLIKOA		GUZTIRA	
	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013	2012	2013
URRIA	16	16	13	18	543	599	78	83	206	89	827	771
AZAROA	18	18	14	8	686	294	48	36	37	47	771	377
ABENDUA	5	5	8	3	276	38	14	2	88	57	378	97
HILA	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
URTARRILA	16	17	6	18	177	553	10	37	30	30	217	620
OTSAILA	18	20	7	17	193	440	42	29	19	27	254	496
MARTXOA	16	18	16	13	620	473	52	57	235	224	907	754
APIRILA	17	12	17	10	478	363	30	44	64	61	572	468
MAIATZA	20	20	18	11	521	327	65	41	62	191	648	559
EKAINA	10	10	16	18	763	490	57	42	751	1.143	1.571	1.675
UZTAILA	/	/	3	2	36	36	9	11	73	107	118	154
ABUZTUA	/	/	/	/	/	/	/	/	85	113	85	113
IRAILA	8	8	1	5	50	232	3	6	43	56	96	294
GUZTIRA	144	144	119	123	4.343	3.845	408	388	1.694	2.145	6.445	6.378

5- SENTSIBILIZAZIOA

Ingurugiro Etxeak gure planetak gaur egun jasaten dituen arazo nagusiak, ondorioak eta egon daitezkeen konponbideak azaltzen ditu. Ekipamendu honek eskaintzen dituen hezkuntza-programen helburua Garapen Iraunkorreko 2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategian jarritako helburuak betetzen laguntzea da:

- Ingurumen osasuntsua lortzea.
- Baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua egitea.
- Izadia eta Biodibertsitatea zaindu eta gordetzea.
- Lurralde arteko oreka eta mugikortasun iraunkorra lortzea.
- Klima aldaketaren aurkako neurriak hartzea.

Bestalde, Eskolako Agenda 21en esparruan ere sentsibilizazio lana burutu da. Izan ere, iraunkortasuna lortzea denon lana denez, guztiok gure etxeetan, ikastetxeetan edo kalean gure bizimodua eta ohiturak aldatzen ahalegindu behar dugu, parte hartu eta eskolako eta herriko ingurumen kalitatean zerikusia duten arlo guztietan inplikatu.

Aztertzen ari garen epealdian burututako ekintza aipagarrienak ondorengoak dira:

5.1 Bigarren Eskuko Azoka: Abenduaren 27an eta 28an, Azoka Herritik ekimenaren barne, Iraurgi ikastetxeak bigarren eskuko jostailuen azoka kudeatu zuen Batxilergoko ikasleen eskutik.

5.2 igara Errotako Ate-Irekiak: Uraren mundu mailako egunaren harira, martxoaren 22an eta 23an, Igarako errota ikusteko aukera eskaini genien herritarrei. Egun bakoitzean bi saio burutu genituen. Bi egunetan gerturatutakoak 155 izan ziren.

5.3 Idea Onenaren Lehiaketa: Azpeitiko Udalak, Eskolako Agenda 21aren programaren baitan, II Idea Onenaren Lehiaketa martxan jarri nahi izan zuen. Ekimenaren helburua, ikasleen artean energia eta uraren kontsumoa murrizteko ideiak sustatzea izan zen, beti ere, baliabide naturalen erabilera zentzuduna bultzatuz.

Lehiaketa honetan, Azpeitiko ikastetxeetako ikasleek hartu zuten parte. Bi kategoria desberdin ziren. Alde batetik Lehen Hezkuntzako ikasleak eta bestetik DBH eta Batxilergokoak.


LHkoek, gelaka hartu zuten parte eta beraien tutorea izan zen arduraduna. Parte hartu zuen gela bakoitzak ikastetxean energia edo uraren kontsumoa murrizteko ideia bakarra aurkeztu ahal izan zuen.

DBH eta Batxilergokoek berriz, taldeka hartu zuten parte eta taldeak gehienez lau ikaslez osatuta egon ziren. Talde bakoitzak herrian energiaren kontsumoa murrizteko ideia bakarra aurkeztu zuen.

Epaimahaia maiatzaren 19an bildu zen eta ondorengo pertsonak osatu zuten: Leire Etxaniz, Azpeitiko udaleko zinegotziak, Izaskun Zeziaga, Azpeitiko udaleko ingurumen teknikariak eta Ana Arruti eta Edurne Agirrek, Ingurugiro Etxea museoko teknikariek.

Esan beharra dago LH-n saria “ *Aurreztu adimen anitzen bidez*” proposamenak jaso

zuela. DBH eta Batxilergoko lehiaketaren saria, berriz, Iraurgi ikastetxeko DBHko. “*Urtartela*” proposamenak.



LH-koentzat saria Urdaibaira egun pasa izan zen. Hori dela eta, irailaren 19an, lehendabizi Torre Madariaga, Euskadiko Biodibertsitate Zentroa bisitatu zuten. Ondoren kostaldeko bisita gidatua egiteko. Bazkaldu ostean, ur-suziri tailerra burutu zuten.



5.4: Material birziklatuekin egindako eskulanen erakusketa: Maiatzaren 30etik ekainaren 8ra, egon zen Betharram aretoan. Ikasturtean zehar EA21 prozesuaren baitan herriko ikastetxeetan material desberdinekin eskulanak egin zituzten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek eta horiek ziren herritarrei aurkeztu zizkietenak. Esan beharra dago ekimena oso arrakastatsua izan zela. Izan ere, 986 ikusle izan ziren erakusketara gerturatutakoak, iaz baino 378 gehiago, hain zuzen.

Ikastetxeetako EA21eko koordinatzaileek, Izaskun Zeziagak, Azpeitiko udaleko ingurumen teknikariak eta museoko hezitzaileok erakusketaren muntaian (maiatzaren 29an) eta desmuntaiari (ekainaren 9an) parte hartu genuen.



5.5: Ingurumenaren astea: Ingurumenaren Mundu Egunaren inguruan hainbat jarduera antolatu genituen Ingurugiro Etxea museoan:

5.5.1. Hitzaldia

Ekainaren 5ean, *Aurreztu etxean, energia gutxiago kontsumituz* hitzaldia eman zuen Joseba Garmendia TINKO enpresako ingeniariak, energiaren erabilera arduratsua eta aurrezpenerako zenbait jarraibide praktiko ezagutzera eman zituen. Hitzaldian 16 pertsonak hartu zuten parte.



5.5.2. **“Hartu eta ugaltu tailerra”**

Ekainaren 6an, 17:30etik 19:00etara Lehen Hezkuntzarako ikasleei zuzenduta landareen ugalketaren inguruko tailerra egin zuen Kimu Bat enpresak museoko parkean, 41 lagunen partaidetzarekin.



5.5.3. “Energiaren Festa”



Ekainaren 7an, 11:00etatik 14:00etara haurrentzako tailerrak eta erakusketak egon ziren museoan. Gerturatu zirenak, eguzki energiarekin ibiltzen den kotxe bana egiteko aukera izan zuten, baita eguzki sukaldean egindako txistorra eta txanpinoiak dastatzeko aukera ere. Festa honetan 39 lagun bildu ziren.

5.6 Baratzezaintza ikastaroak: ekainaren 11tik-13ra Azpeitiko Ikastetxeetako DBH 1. mailako 199 ikaslek Baratzezaintza inguruko tailerrak egiteko aukera izan zuten.

Jarduera hauek ordu eta erdiko iraupena izan zuten eta Kimu Bat enpresak kudeatuak izan ziren.




5.7 Eskola Berdea: Eskola Berdearen barruan, eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleei bilgarri berrerabilgarriak banatu zitzaizkien hamaiketako ogitartekoekin sortzen dituzten hondakinak saihesteko eta plastikoa eta zilarra murrizteko asmoz.

5.8 Ibaiaren garbiketa: Ekainaren 18an Azpeitiko hiru ikastetxetako ikasleek ibaiaren garbiketari ekin zioten. Urola ibaia hiru tartetan banatuta, ikastetxe bakoitzak tarte bat garbitu zuen:

- Azpeitiko ikastola Ikasberri: Loiola-Igerilekua
- Urola ikastola: Igerilekua-Etxe Zuri
- Iraurgi ikastetxea: Etxe Zuri-Lasao

Ekimen honetan Azpeitiko Udalak, herriko ikastetxeek eta Baigera Erretiratuen elkarteak hartu zuten parte. Guztira, 100 ikasle, erretiratu eta norbanako bildu ziren.

Garbiketa lanak bukatu eta gero, ikasleek hamaiketakoa dastatu zuten.



5.9 Buletina: Bertan, ikastetxeek bateratuta (Iraurgi ikastetxeak, Karmelo Etxegarai ikastolak, Urola ikastolak, eta Azpeitiko ikastola Ikasberrik) eta zikloka, egindako lanen berri eman zuten, dagozkien irudiez lagunduta. Buletinean, bestalde, ikasleek hartutako konpromisoak eta Udalerako proposamenak azaltzen dira, baita egitasmo hau bideratzeko laguntasuna eskaini duten erakunde eta pertsonarekiko esker ona azaldu ere.

Buletinaren 5000 ale banatu ziren Azpeitiko etxe guztietara Mundu Mailako Ingurumen Egunaren inguruan.

6- BALIABIDEAK

Eskolako Agenda 21

Eskolako Agenda 21: 2013-2014 ikasturtean "**Aztarna ekologikoa: energia eta ura**" gaia lantzeko, Ingurugiro Etxeko hezitzaileok jarraian azaltzen diren lan-material berriak sortu ditugu Legazpiko Ingurugelako Eburne Huesaren gidaritzapean :

⑩ **Oinarrizkoak:**

Energia-Elektrizitatea (LH 1. zikloa)

Ur-kontsumoa (LH 2. zikloa)

- Aztarna ekologikoa: energia eta ura (LH 3. zikloa)

- Aztarna ekologikoa: energia eta ura (DBH 1. zikloa)
. zikloa)

- Aztana ekologikoa: energia eta ura (DBH-2. zikloa)

-Aztarna ekologikoa: energia eta ura (Batxilergoa)

Osagarriak:

- Energiaren jolasa (LH 1. zikloa)

-Azpeitiko udaleko eta udalerriko 2009-2011 urte bitarteko Berotegi Efektuko Gasen (BEG) Inbentarioei buruzko informazioa.

Beste zikloei dagozkien jarduera osagarriak, irteerak eta ekintza praktikoak izan dira.

Esan beharra dago 2004-2005 ikasturteaz geroztik, Ingurugiro Etxeko teknikariok Eskolako Agenda 21 esparruan sortu ditugun material guztiekin material karpeta bat sortu dugula. Diseinu lan hau Azpeitiko Azpiazu & Urarte enpresak egina da (2011-2012 ikasturtea geroztik edizio lan hau Eregi enpresak burutu du) eta bi formatu dauzka. Alde batetik, formatu digitala, museoko webgunean eta Elearning Hezkuntza atarian zintzilikatzeke, eta bestetik, paperezko euskarria, museoan bertan erabiltzeko

7- PARTAIDETZA ETA KOORDINAZIOA

7. 1 Batzorde Teknikoaren Bilerak

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntzako arduradunekin eta udal-teknikaria den Izaskun Zeziagarekin bildu gara Ingurugiro Etxea museoan, epealdiari dagozkion memoriak aztertu eta bertako kudeaketaren irizpideak finkatzeko asmoz. Ikasturte honetan ondorengo bilerak egin ditugu:

- 2013ko urriaren 14an
- 2014ko otsailaren 21ean
- 2014ko maiatzaren 6an
- 2014ko uztailaren 10ean

7. 2 EA 21 Programazioa

7. 2. 1 Koordinazio Bilerak

Eskolako Agenda 21ean parte hartzen dugun eragile guztion (udal-teknikariak, irakasleak, Ingurugela, aholkularitza enpresa) koordinazio bileretako partaide gara. Ikasturte honetako Koordinazio bilerak Ingurugiro Etxea museoan egin dira honako egunetan:

- Urriaren 10ean ikastetxeetako EA21eko koordinatzaileei eskaintzaren aurkezpena egin genien

- Azaroaren 21ean
- Urtarrilaren 23an
- Martxoaren 13an
- Apirilaren 10ean
- Maiatzaren 29an

Bestalde, uztailaren 4an, 2014-2015 ikasturtean Azpeitiko eta Azkoitiko herrietan EA21eko eskaintza bateratu bat prestatzeko asmoz elkartu ginen museoko hezitzaileak, Izaskun Zeziaga, Azpeitiko ingurumen udal teknikaria, Artelatzeko Arantxa Oria eta Ingurugelako Edurne Huesa.

7. 2. 2 Eskolarteko Foroa

Apirilaren 3an Eskolarteko Foroa egin genuen Ingurugiro Etxean. Bertan lau ikastetxeetako ordezkariak eta koordinatzaileak alkateari luzatu beharreko eskariak eta konpromiso pertsonalak adostu genituen.



7. 2. 3 Udal- audientzia

Maiatzaren 22an **Udal-Audientzia** egin genuen Udaletxeko Areto Nagusian

8-



ERANSKINAK *

Ondorengo eranskinean Ingurugiro Etxetik kudeatutako bisita kopuruari buruzko informazioa sartu dugu.

Azpeitian, 2014ko urriaren 7an